


Sagardoa eta sagardotegiak  
 Euskal Herriko parte handi  
 bat dira. Garai batean  
 ardorik ez baina  
 baserrietan egindako  
 sagardoa edaten zen.  
 Sagardozale oso ezaguna  
 garai hartan. Donostian  
 behintzat, Martzial Zikin  
 zen, Irutxulo aldizkarian  
 agertzen den bezala.

eta ahoz  
 aho...



**M**artzial Zikin goitizena ez zen, beharbada, inoiz hobeki asmatuko munduan. Berez utzia zen Martzial, zikina garbi esateko. Gertan hasierako Donostia zaharrena ez zegoen Martzial ezagutuaren ez zuenik. Uraren etsai porro-

katua, ezpainak bakarrik izaten omen zituen garbi, maiz edandako sagardoak garbitzen zizkion eta hura konturatu gabe!  
 Bertsolari txukun eta sakontasun handikoa omen zen, baina lotzati samarra jendaurrean kantatze-ko; ahal zuen guztietan, behintzat, ez zuen kantatzerik nahi izaten.  
 Sagardotegietan ematen zuen bere denborarik gehiena. Ikatz kaleko Correopia sagardotegia

izan zuen bizileku azken urteetan. Hantxe egiten omen zuen lo, aulki batean etzanda, bertako katu-arratzen laguntza ederrean. Bizimodu onik izan ez bazuen ere, urtetan oso aurreratuta hil zen. Okendo-ren estatuako txokolatera ospetsuari begira zegoela bat-batean harrapatutako pulmoniak jota..  
 Anikuluaz irakurri ondoren, Miguel Angel Saenzek, Sagardo elkarteke lehendakariak, Donostiako

Parte Zaharreko sagardotegi batzuk ezagutu zituela esaten digu.  
 -Garai batean, Parte Zaharrean ia baju guztiak sagardotegiak ziren. Hantxe biltzen ziren arrantzaleak, arrantzara irten baino lehen. Bertsotan eta kantari aritzen ziren, sagardoa edaten. Ohitura honi ez zitzaion Donostian bakarrik jarraitzen, herrialde osoan baizik. -Garai hartan ez zegoen ardonk, orduan Donostian arrantzaleak eta beste

lekuetan basentarrak sagardotegietan biltzen ziren. Gerra garaian sagardotegi asko itxi egin ziren eta elkarte asko hortik sortutakoak dira, Gaztelubide, Gaztelupe, etab..  
 Gerra pasatu ondoren, sagarondo asko kendu egin zituzten.

**BARKAIZTEGI**  
 SAGARDOAK

Paseo de Barkaiztegi  
 ☎ 45 13 04  
 45 55 01  
 MARTUTENE

**URKIOLA**  
 SAGARDOAK

Ferrer-enea baserría • IBAETA AUZOA • Tfoa. 21 01 68  
 DONOSTIA

**TXIKIERDI** SAGARDOTEGIA

- AMAIKETAKOAK
- MERIENDAK
- AFARIAK
- EGUNERO IREKIA

Zorionak eta urteberri on

Txiki Erdi • Tel.: 49 06 78 20180 OIARTZUN

**BIDEBITARTE**  
 sagardotegia

Astegun eta asteburutan zabalik  
 Astelehentan itxen dugu.  
 Arragua Auzoa (Peajeetik 100 metrotrara) • OIARTZUN • Tel. 49 21 01